



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

BASTIDA IKASTOLA

Ikastetxearen kodea:

010170

Data:

2023(e)ko ekainaren 1(a)





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

BASTIDA IKASTOLAREN BILAKAERA HISTORIKOA

Bastida Ikastola 1979. urtean sortu zen, eta aurten 43. urtemuga ospatuko dugu. 9 ikaslerekin jarri zen martxan, guztiak bastidarrak, eta gaur egun ikasleak izugarri gehitu dira Bastidakoak ez-ezik, inguruko hainbat herrietako ikasleak biltzen ditugu gure ikastolan.

Bastida Ikastolako lehenengo gela irekitzea ez zen erraza izan, nahiko prozesu gogorra izan zen. Arabako Errioxako beste herri batzuetan baino nekeagoa izan zen ikastolaren gela zabaltzea Bastidan. Konbentzimendua zen gorabehera, beharbada. Herriaren eta hizkuntzaren kontzientzia menturaz. Hinki-hanka zeuden familiei zirt edo zart egiteko garaia heldu zitzaien arte. 43 urte geroago ikastolan lanean ari garen komunitate guztiak eskerrak eman behar erabaki hori hartu zuten guztiei.

Eremu erdaldunean dagoela eta haur guztiak erdaldunak zirela kontuan hartuta, hasiera baten B eredia izan zen nagusi. Egoera hau izanda ere, ikastola baten izaera ez zen ahaztu eta euskarari aparteko garrantzia eman zitzaion, izan ere, gai garrantzitsuenak euskaraz irakasten baitziren.

Hala ere, handik urte batzuetara, 1996-1997 ikasturtean, D eredia jarri zen martxan. Aldaketa honen arrazoia ikastolan egindako hausnarketa bat izan zen. Euskara bultzatu eta haur haiek euskaraz bizi zitezen lortu nahi bazen, beharrezkoa zen ikastolako jardura aldatzea eta euskara hutsean aritzea. Ume haien euskal eredu eta eremu bakarra ikastola zen eta horregatik aho batez erabaki zen aproposagoa zela D eredia abiatzea. Honekin batera, 1991n Ikastolen Elkarteak proposatutako Eleanitz-English proiektua ere martxan jarri zen ikasturte hartan. Bi aldaketa erraldoi hauekin ikastolaren egunerokotasuna eta handik aurrerako jarduna irauli genuen, eta momentu hartako behar nagusietako bat ase genuen: haurrak euskarara murgiltzeko bitarteko guztiak jartzea, hain zuzen ere.

Hala ere, oraindik euskara ikastolako eremura mugatuta zegoela ikusi zen eta horregatik, 90eko hamarkadan zehar Euskaraz Bizi proiektuan murgildu ginen, euskara gelatik eta ikastolatik ateratzeko.

Aipagarria da, 2006-2007 ikasturtean, gertatu zen aldaketa berria, ikasturte hartan ordura arte izandako udalaren eraikina utzi eta eraikin propioa lortu genuen. Eraikin honek hobe asetzen ditu geure beharrak, handiago baita eta bertan gela bereziak baitaude. Gainera, eraikin berriarekin batera, Bastida Ikastolan Assa Ikastolako gelategi bat ireki zen DBH 1. eta DBH 2. mailak bertan ikasi ahal izateko.

IKASLEAK ETORKIZUNERAKO HEZTEN

Badira hamasei ikasturte Bastida Ikastolako eraikin berrian gaudela. Urteetan helburu honekin lan egin dugun guztiok oso harro sentitzen gara azkenean kalitatezko hezkuntza eskaintzea posible izan dugulako baliabide askoren bitartez: jangela, psikomotritate gela, informatika gela, patioa... Orain gure bidea daukagu ekipamendua mantentzen eta hobetzen, ikastolaren garapenak baliabide hauek guztiak eguneratuta edukitzera derrigortzen baikaitu.

Bastida Ikastola ez da sekula geldirik geratuko etorkizuneko irakaskuntza hobetzeko asmoz, horregatik esan behar proiektu berrietan murgilduta gaudela. Batetik, Haur Hezkuntza, HIZAN proiektuarekin ezarri nahi dugun metodologia berrian, helduaren paperaren aldaketan eta umearen begiradan oinarritutakoa, bestalde Lehen Hezkuntzan, Haur Hezkuntzako proiektuari jarraipena emanez KIMU proiektua ezarri dugu 1. eta 2. eta 3. mailan eta EKI metodologia 4. mailatik aurrera. KIVA programa ezarri dugu Lehen Hezkuntzako maila guztietan, jazarpenaren kontrako aurre lanketa bultzatzeko. Gure ikastola beti bizirik mantendu nahi dugu etorkizuneko irakaskuntzan eta gizartean.

Horretaz gain ESKOLA AGENDA 2030eko kideak gara ingurumenarekin bat eginez eta ikastola jasagarria lortzeko bidea lantzen gaude. HEZKIDETZA proiektua garatu dugu eskubide berdintasunaren alde sexu bereizketa barik.

Lehen Hezkuntzako 2. Zikloko 4. mailatik PENTSAERA KONPUTAZIONALA lantzen, hau ROBOTIKARA eramango gaituen lehen pausoa izan da, beste erronka bat etorkizunerako.

Esan beharrik ez dago 43 urte hauetan EUSKARA-ren alde egin dugun lan guztia. Herrian euskara bultzatzen duen entitaterik garrantzitsuenak garelako esan dezakegu. Hora bestela 1989- 2004- 2008- 2012 eta 2017ko ARABA EUSKARAZ jaialdien antolaketa.

Gure helburua gure ikasleak heztea da, baina ez edozein modutan, bakoitzaren erritmoa errespetatuz eta helburua lortzeko egiten duen ibilbidearen prozesua kontuan izanik.

Aurretik aipatutako guztiarekin zera nahi dugu lortu, ikastola ikasleentzat ingurune erosoan izan dadila. Ikastola eraikuntza funtzionala izango da baina, aldi berean, atsegina, elkarlanean oinarritutako hezkuntzaren alde egiten duen irakaskuntza gunea.

BASTIDA IKASTOLAREN KOOPERATIBA IZAERA

1.- Ikastoletan hezkuntza prozesuan erabakiak hartzeko momentuan inplikaturako talde guztiek (familiak, langileak eta ikasleak) parte hartzen dute. Ikastola bakoitzak hartzen duen forma juridikoaz gain (normalean kooperatiba), ikastolen oinarritzko filosofia da hezkuntza-komunitatea osatzen duten gizatalde guztien artean, era demokratikoan, hartzea bere funtzionamendurako funtsezko erabakiak. Horrek familiak hezkuntza-prozesuan gehiago inplikatzeko dakar, eta uste dugu ezinbestekoa dela prozesu hori eraginkorra izatea, gure seme-alaben hezkuntza gure esku dagoela uste baitugu.

2.- Ikastoletan euskara da ikaskuntza prozesua bideratzeko ezinbesteko tresna, eta ez hori bakarrik, guretzat euskaraz bitztea helburu bat da; ikastoletan ez dugu ikasketa eta hezkuntza prozesu hori euskara eta euskal kultura gabe ulertzen, gure funtzionamenduaren funtsezko elementuak dira biak, eta euskararen ezagutza eta erabilera emaitzek hori horrela dela erakusten dute. Lortutako emaitzekin konformatzen ez bagara ere, argi dago ikastolak direla hezkuntza sistema osoan euskal hitzun konpetenteenak hezten dituen sarea.

3.- Ikastolak bide egile gara berrikuntza pedagogikoan, aitzindari papera erantzukizunez betez. Hezkuntza proiektu sendo eta propioak dituzte ikastola guztiek, ikasleen irteera profilarri begira lan egiten dugu. Konpetentzien garapenean fokua jarritz, ezagutzak barneratzea bermatuz eta espazioak ikaskuntza prozesuaren zerbitzura egon daitezela diseinatuz. Egungo euskal hezkuntza-sistema ezin da ulertu ikastolek historikoki ikuspegi pedagogikotik egin dioten eta egiten jarraitzen duten ekarpenik gabe: Txanela, Urtxintxa, EKI, Kimu, Kuku, Euskaraz Bizi, Aisialdia ... bezalako proiektuak, horrenbeste aipatzen den Euskal Curriculumean oinarritutako proiektuak, garatu eta sistema osoaren zerbitzura jartzen ditugu. Euskal dimentsioaren lanketa sistematiko eta sekuentziatua egiteko ikasmaterialak sortu ditugu, puntako produktu nazionalak garatuz.

4. Ikastolena ez da bere baitan hasi eta bukatzen den egitasmoa. Euskal Herriaren izaera islatu eta hezkuntzaren bidez eraldatzen duen eragile bizi gara, beste gizarte-mugimendu batzuekin batera, bereziki euskararen, euskal kulturaren eta kooperatibismoaren mundukoekin elkarlanean jarduten dugu. Aktiboki parte hartzen dugu gizarte-erakundeetan (Kontseilua, Euskal Unibertsitateak, Gaindegia...), euskararen garapena sustatzen duten ekimenetan (Puntueus, Errigora, Bizipoza, Euskararen marka, Euskaraldia...) eta akordio estrategikoak ditugu arlo horretan lan egiten duten erakunde ia guztiekin (Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, AEK, Bertsozaleen Elkarte, Elkar, Irrien Lagunak, Wikilariak, ...). Herri honekin, euskararekin eta euskal kulturarekin dugun konpromisoa gure irakaskuntza-proiektutik askoz harago doa, gure izatearen oinarritzko osagaia da. Guretzat, garrantzitsuena, egiten ditugun proposamenak, onura komun eta publikokoak direla da: Ikastolen proiektuarekin, gizarte osoak irabazten du.

5. Ikastolak herrigintzatik sortu diren heinean, egun ere oinarri duten auzolana, komunitatearen parte izateko pizgarri da; parte hartzeko guneak, erabakimena, eragiteko aukera, klase orduz gaindikoa eskaintza, herriarekiko eta herritarrekiko ekarpena... proiektuaren parte aktibo izateko aukera eskaintzen dute ikastolek, auzolanean, kolektiboan eragiteko ekimenak planteatuz. Honek, proiektua norberarena ere sentiaraztea dakar, baita harremanak garatzeko aukera berriak edota estuak ere. Heziketa eremutik askoz ere harago doan proiektua da: Ikastolak herri egileak dira. Euskal Herri osoarentzako hezkuntza sistema propio baten alde eta euskal gizarte euskaldun, berdinzale eta iraunkor baten alde lanean jarraituko dugu, orain arte bezala. Eta hori egingo dugu, ziurrenik, erosoena eta errazena ez den bidetik: herrigintzatik, hain zuzen ere. Elkarlan kolektibotik, erantzukidetasunetik. Irmoki sinesten baitugu horretan: herritarrok, gurasook, ikasleok, langileok eta eragileok ditugun erronkei eta beharrei era antolatuan erantzuteko dugun gaitasunean.

IKASTOLAREN TESTUINGURU SOZIOLOGIKOA

Bastida Ikastola Bastidan, Arabako Errioxan kokatua dagoen ikastola da eta gure egoera soziolinguistikoa oso berezia dela esan behar da: Arabako eremu erdaldun batean kokatua dago ikastola eta, gainera, haur kopuru handi bat Euskal Herrikan kanpo bizi da.

Hauek dira datuak, zehazki:

-Herrika:

HERRIA	UME KOPURUA
BASTIDA	90
HARO	39
SAN VICENTE DE LA SONSIERRA	10
CASALARREINA	9
MIRANDA DE EBRO	6
CIHURI	5
ZAMBRANA	4
ANGUCIANA	
GUZTIRA	173

Ikastolako klaustroak urte asko daramatza elkarrekin lanean eta horrek erraztu egiten du etorkizunerako proiektuetan murgiltzea. Horregatik horrenbeste berrikuntza, pedagogia mailan. Emandako aldaketak asko kostatu zaizkigu, batez ere gure etorkizuna lotuta egon delako eraikuntzaren inguruko gastuei. Urteroko kredituak ez digu guk nahi genuen abiadura hartu etorkizunerako planteamenduan. Baina horrek, ez gaitu geldi utzi, ahal den heinean eta dugun klaustroaren laguntzaz, bide hori ere jorratu dugu eta emaitzak hor daude, Haur Hezkuntzako proiektuetan eta baita ere Lehen Hezkuntzakoan. Elkarrekin egindako lanak bere fruituak eman ditu azkenean. Gure klaustroa 13 irakasle osatzen dute, bertatik 4 gizon eta 9 emakume. Ezin ahaztu gurekin batera bidaia luze honetan lagundu diguten, ekonomi buruak, administrazioarekin eta beste erakunde guztiekin harremanetan laguntza ematen diguna, orientatzailea, bere aholkuak ere ezinbestekoak izan dira irakasle eta ikasleei laguntzeko. Beste batzuk ere gurekin daramatzagu, garbitzaileak eta jantokiko eta autobuseko zaintzaileak. Denen indarraren baturak gure proiektua aurrera eramateko indarra eta kemena eman digu, eta etorkizunean, bai gure pentsamendua, eta proiektuak kokatzeko ahalmena.

Nork lagundu digun gure helburuak lortzen? Hasteko gure langileriak, baina bidaia honetan ezin dugu bakarrik bidaiatu. Horretarako Hezkuntza Sailaren laguntza ezinbestekoa da, eta batez ere, Euskal Herriko Ikastolak osatzen dugu sareak. Hau da gure euskarririk nagusia, bai ekonomikoki, orain arte behitza, eta baita ere pedagogia arloan, beraiek sortu dituzten materialen erabileran eta formakuntzan. Hau da gure sareak duen indarririk handiena, taldearen sendotasuna eta elkar laguntzeko borondatea eta asmoa.

Ikastolaren etorkizuna aspektu ezberdinak baldintzaten dute. Batetik eta hasteako, jaiotza tasaren jaitzierak eta bestalde Hezkuntza Legeak. Zer gertatuko da etorkizunean ikastolekin? Hori ikusteko dago eta bi aspektu hauek guztz markatuko dute gure etorkizuna.

Baina hauek alde batera utzita, argi dugu nolako ikastola izan nahi dugun etorkizunean. Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzan hezitutako ikasleak nahi ditugu, baloredun ikasleak, etorkizunerako prestatuta daudenak, teknologian ongi moldatzen direnak eta beraien sustraiei eta kulturari errespetua diotenak.

Hau dena lortzeko, baliabideak jarri behar ditugu, azken metodologiak martxan jarri, hezkuntzarekiko irakasleen ikuspegi aldatu eta etengabeko formakuntza planetan parte hartu, aurretik aipatutako guztia lortu ahal izateko.

Eredua izan nahiko genuke inguruko hezkuntza zentruen artean, batez ere gure metodologia aintzariagatik eta hezkuntza eredu ezberdina eskaintzen dugulako. Metodologia berriak oinarri bezala hartuz.

Hau lortu ahal izateko, Hezkuntza Sailak onartu beharreko planifikazioa hartuko genuke oinarri, eta hau ondo badoa, hurrengo hiru lau ikasturtetan lortu dugun ametsa dugu.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Bastida Ikastolan LH3. mailatik aurrera ikasle guztiek Chromebook-a dute, hain zuzen ere guztira 68 gailu daude. Irakasle tutoreek Chromebook taktila daukate, 10 guztira. Espezialistek taktila ez diren bi.

Irakasle gelan beste 6 CPU daude Windows sistemarekin eta Informatika gelan beste 12. Azken hauek LH1, 2 eta 3ko ikasleek erabiltzen dituzte.

Idazkaritzan ere windows duen gailu bat dago.

LH6ko gelan pantaila interaktiboa dago proiektore batekin konektatuta.

LH5eko gelan proiektorea oradenagailuarekin konektatzen da eta arbel batean proiektatzen da.

Lehenengo eta bigarren zikloetan erabiltzeko telebista bana dago ordenagailuarekin konektatuta.

HHrako beste bi proiektore daude.

LH6. mailan Robotikan aritzen dira eta horretarako 6 robot daude.

Bi inprimagailu daude, irakasle gelan bat han dauden CPU-rekin konektatuta eta ordenagailu eramangarriekin wifi bitartez konektatzeko aukeraz. Goiko solairuan wifi konexioa duen beste inprimagailu bat dago.

Konektibitatea ziurtatuta dago eraikin guztian. Irakasle gelan, idazkaritzan, zuzendaritzan eta Informatika gelan kable sarea dago. Horretaz aparte, lau lekutan wifi bitartez konektatzeko aukera ere badago. Eraikin osoan Wifi konexioa dago eta horretarako 4 wifi desberdin ditugu.

Bai gestio akademikorako bai ekonomirako bai familiarekin kontaktuan jartzeko Alexia plataforma erabiltzen da.

Ikastolan LH4. mailatik aurreko ikasleek, ikastolako langile guztiek eta familia guztiek (amak bat, aita beste bat) @bastidaikastola.eus domeinuarekin lotuta dauka gmail helbide bat.

Ikastetxearen barruan Drive, Classroom, Calendar ... aplikazioak egunerakotasunean sartuta daude.

Hauetaz aparte, Ikastolen Elkartearekin Saioka plataforma erabiltzen dugu classroom bertan dagoelako, materiala eskuratzeko ...

Moodle plataforma ere badago eta bertan preskuntzarekin zerikusia duen guztia topa daiteke.

Bastida Ikastolak web orrialde propioa du baita Facebook-a eta Instagram-a ere.

Mantenua IKT teknikariak gestionatzen du. Konponketak egin behar direnean bera kanpoko enpresa batekin harremanetan jartzen da. Ez dago ezer kontraturik, beharren arabera egiten da.

Mantenu prebentiborako plana ez da existitzen ezta zuzentzailerako ere ez.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

DIGITALIZAZIO PLAN BERRIA: SARRERA

Dagokigun marko legal europarrean jasotzen den bezala, informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera orokortuak, eguneroko bizitzako hainbat alderditan, aldaketa sakonak azkartu ditu errealitatearen ulermenean eta bertan konprometitzeko eta parte hartzeko moduan, norberaren nortasuna eraikitzeko eta bizitzan zehar ikasteko gaitasunetan, kulturen eta bizikidetzaren demokratikoan, besteak beste.

Ikuspegi-aldaketa horrek teknologiaren eragin pertsonala eta soziala, eragin hori emakumeengan eta gizonengan desberdina dela eta teknologiaren, pertsonen, ekonomiaren eta ingurumenaren arteko harremanari buruzko hausnarketa etorkia ere behar du, ikasleek konpetentzia digitalean zein irakaskuntzako konpetentzia digitalean garatuko dena.

Ondorioz, beharrezkoa da hezkuntza-sistemak errealitate sozial horri erantzutea eta gaitasun digitalaren ikuspegi modernoagoa eta zabalagoa txertatzea, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunei buruzko Europako gomendioekin bat etorriz.

Proposamenak, halaber, gure gizarteetan gertatzen ari den aldaketa digitala kontuan hartzeko beharra azpimarratzen du, aldaketa horrek nahitaez eragiten baitio hezkuntza-jarduerari. Beraz, Gaitasun Digitala garatzea funtsezkoa da irakasleak eta ikasleak agertoki berrietan moldatzeko, ikasleek XXI. mendeko trebetasunak eta gaitasunak garatu ahal izan ditzaten, eta irakasleek irakatsi eta ikasteko prozesuak hobetu eta modernizatu ahal izan ditzaten. Horregatik, ikastolatan egiten diren hezkuntza-ekintza guztiek trinomio zatiezina osatzen duten oinarriko hiru zutabe bermatu behar dituzte: pedagogia, teknologia eta gune inspiratzaileak, non elementu bakoitzak gainerakoekin duen loturagatik bakarrik duen zentzua.

Bestalde, eten digitalak (gailuetara iristeko zailtasuna eta konektibitatea) agerian utzi ditu ikasleek eta familien desberdintasunak eta gizarte- eta hezkuntza-ahultasuna. Ondorioz, guztiontzako gailuak eta konektibitatea lortzea izan da gaur egungo hezkuntza-politiken lehentasunezko helburuetako bat, kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzeko eta pertsona guztientzako etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatzeko. Ikastolaren plan digitalak, bere jardueren artean, desberdintasunak konpentsatzeko eta arrakala digitala murrizteko estrategiak jaso behar ditu, eta, horretarako, hezkuntza digitala erraztu behar du hainbat agertokitan (aurrez aurreko irakaskuntza eta urrutiko irakaskuntza), eta konektagarritasuna duten gailuak jarri behar ditu ikasleek eskura.

Azkenik, ikasleek teknologia digitalak erabiltzeko, prestakuntza egokia behar da herritartasun digitalean, teknologia horiek behar bezala erabili eta gozatzeko, eta, alde batetik, erabat, seguru, osasuntsu eta arduratsu ibiliko direla bermatzeko da, eta, bestetik, datu pertsonalak eta norberaren eta bestearen eskubide digitalak babesteko direla. Ikasleek garapen integralerako funtsezko alderdi horiek ikastolako plan digitalaren helburuak ere izan behar dute.

IKASTOLAREN PLAN DIGITALA: OINARRIZKO KOKAPENA

Ikastolaren plan digitala Hezkuntza Proiektuan integratuta egon behar duen plangintza-tresna bat da, LOMLOEren artikulua bakarrean jasotakoaren arabera. "Ikastolaren hezkuntza-proiektuak, halaber, ikastolaren estrategia digitala jasoko du", hezkuntza-komunitatearen gaitasun digitala garatzeko, berrikuntza sustatzeko eta informazio- eta komunikazio-teknologiei eta hezkuntza-baliabide digitalei ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Plan hori hezkuntza-komunitateko sektore guztien parte-hartzearekin eraiki behar da, proiektu partekatua izan dadin. Era berean, aipatutako legearen hamargarren xedapen gehigarriaren arabera, larrialdi-egoerentarako Kontingentzia Planak ikasleek eta irakasleek gaitasun digitala bermatzeko duten neurriak jasoko ditu, eta, ahal den neurrian, murriztu egingo ditu sartzeko eta erabiltzeko eten digitalak, bai eta curriculumeko elementuak eta curriculumaren alderdi konpetentzialenak ardatz dituzten programazio didaktikoak berrikusteko aurreikuspenak ere.

Ikastolaren plan digitalak aukera eman behar dio hezkuntza-komunitateari ikastola nora iristea nahi duen ikusteko, gaur egun non dagoen ulertzeko eta egoera batetik bestera eramango duen bidea marrazteko.

Orientazio horiek Europako Batzordearen Ikerketa Zentro Bateratuak (JRC, Joint Research Centre) garatutako Digitaliki Eskumena duten Hezkuntza Erakundeentzako Europako Esparrua (DigCompOrg) kontuan hartuta egin dira.

Ikastolaren Plan Digitala bitarteko digitalen erabilera erraztu eta bultzatu behar duen tresna da, bai irakatsi eta ikasteko prozesuetan, bai ikastolako gainerako kudeaketa-prozesuetan, betiere ikasleek garapen integratuzko laguntzako azken helburuarekin. Horregatik, hezkuntza-proiektuan, zuzendaritza-proiektuan eta urteko programazio orokorrean integratuko den tresna izan behar du. Gainera, ezinbestekoa da eskura dauden baliabide pedagogiko digitalen erabilera buruzko ikastolaren ikuspegia ematea Plan Digitalari, haren aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzeko, hezkuntza-komunitateko kide guztiek partekatutako proiektua izan dadin, koherentzia eman dezan eta teknologiaren erabilera gidatu dezan. Hezkuntza Proiektuaren, Zuzendaritza Proiektuaren eta Urteko Programazio Orokorraren (PGA) parte den tresna izango da.

IKASTOLAREN PLAN DIGITALAREN JUSTIFIKAZIOA: GOGOETA ETA PRAKTIKA TEKNOLOGIKO BATEN BILA

Ikastolaren Plan Digital berri honen diagnostikoaren lehen helburu bat, egungo irakaskuntzan berrikuntza digitalekiko dagoen jarrera aztertzea eta ulertzea izan beharko du. Jakin badakigu, gizartearen aldaketak eta berrikuntzak etengabe gertatzen ari direla, baina horiek hezkuntzara egokitu behar direla, etorkizuneko herritarrak izango diren ikasleek hezteko baita irakasleek zeregin nagusia, datozen aldaketak datozela.

Azken finean, aldaketa horiek guztiek eragina dute materiala, edukiak, antolamendua... bezalako esparruetan, eta aitortu behar dugu horietara egokitze irakasleek esfortzu gehigarria egin behar dutela. Alferrikakoak dira berrikuntza horiek irakasle-taldea aldaketa horietara egokitzen ez bada, horrela nekez landuko baitituzte ikasleekin landu beharrekoak. Eta aipatutako berrikuntza digitalekiko ikuspuntua oso aldakorra da irakasleek artean: batzuk beharrezkoak ez direla eta kaltegarriak direla pentsatzen duten bitartean, beste batzuek lagungarriak eta aberatsak direla uste baitute. Kontraesankorra gerta daiteke hurren eguneroko bizimodua baldintzatzen duten berrikuntzekiko jarrera ezkorra eta pasiboa izatea, eta esan bezala, horren

zergatiaren inguruko gogoeta kritikoa egitea da gure lanaren helburu nagusi bat.

Gizartean izan den iraultza (teknologiko) eraldakorrenetariko baten testigu gara; une oro aldatzen eta berreraikitzen den gizarte baten iraultzaren testigu, eta sarri ez espresuki ongi planifikatua. Espazioa globalizatuz eta aldi berean deslokalizatuz doa; halatan, mikroistorio, mikroikultura eta mikrosegundoen aroa sortu da, mikrolanetarako eta big data ekonomiarako sarbidea emango diguna.

Bien bitartean, transformazio multidimentsional bat gertatu da, globala, trans-historikoa eta multimodala. Eta azpimarratzekoa da horrek guztiak etorkizuneko gizartean gain eta hezkuntzan izan duen eta izango duen eragina. Izan ere, oin digitalen gaineko berregituraketa batera zuzentzen bada gizartea, etorkizuneko herritar izango direnei laguntzeko aukerak sortu beharko ditu hezkuntzak.

Badirudi hezkuntzaren eta gizartearen arteko binomio historikoa inoiz baino garrantzitsuagoa dela. Aspaldi adierazi zen gizarte eredu berri batera aldatzeko giltza hezkuntza prozesuetan dagoela eta bien arteko elkarrekintza ezinbestekoa dela.

Hezkuntzaren helburuetako bat zera da: etorkizunean ikasleek beharko dituzten gaitasunak garatzeko espazioak eta denborak eraikitzea. Digitalizazioaren eraginez, ordea, oso aldakorra bihurtu da orain arte estatikoa izan den ikastearen kontzeptzioa.

Testuinguru horretan, garrantzi berezia hartu dute adimen artifizialak eta big datak, bai eta horiek susta dezaketen hezkuntza pertsonalizatuak ere. Azken egitasmo gisa, proiektu honetan, ibilbide horri heltzen ahaleginduko gara: gizartetik hasi, eta etorkizunean hezkuntzan eragina izan dezaketen baliabideen azterketa sailkatuz.

Hainbaten ustez, irakaspraktikak teknologiaren beharra du eta orain da teknologiak eta hezkuntzak, ikuspuntu kritiko batetik, bat egiteko unea. Ikuspuntu kritiko hori, besteak beste, ezagutzak dakar, Amaia Arroyoren iritziz; «ulertu behar dugu teknologia ez dela neutroa eta gu behar gaituela (gure balioak, gure ideiak, gure jakintza) gizartearen garapena osasuntsua eta etikoa izan dadin. Hortik dator ikuspegi kritikoa beharra».

Teknologiak aukerak eskaintzen dizkigu, bai, baina arriskuak ere hor daude. Esaterako, arriskuen aurrean araudiak, jokabideak eta esku-hartzeak nolakoak izan daitezkeen ezagutu behar dugu; gertatu aurretik saihesteko edota gertatzean esku hartzeko.

Arriskuei buruzko informazioa izatea behar-beharrezkoa da; baina aukeren inguruko informazioa ere oso garrantzitsua dela deritzogu. Izan ere, teknologiaren ikuspegi positiboa landu nahi dugu ikastolaren proiektuan.

Gaur egun teknologia-erabilerarako testuinguru pedagogikoak zein diren, kompetentzia digitalak zer diren, e-learning testuinguruetarako oinarriak zeintzuk diren, hezkuntza digitalerako baliagarri diren hainbat tresna eta aplikazioen berri, teknologiak jendartean eta hezkuntzan duen eragina, hezkuntzen i(ra)kaskuntzaren eta teknologiaren arteko loturak eta berrikuntzak zein ikerketa digitalen ingurukoak bildu daitezke. Askotariko gaiak, beti ere ikuspuntu pedagogikoa ipar hartuta. Adituen ustez, irakaspraktikak teknologiaren beharra du eta orain da teknologiak eta hezkuntzak, ikuspuntu kritiko batetik, bat egiteko unea. Teknologiak berrikuntza ekarri behar dio hezkuntzari, batetik, ikaskuntzan egin beharreko atazak lagunduz edo hobetuz, hots, aurrez aurreko ikaskuntzako kalitatea hobetuz eta, bestetik, ikaskuntzari balio erantsia emanez; hau da, testuinguru digitalean zentzu handiagoa duten atazak eta metodoak bultzatuz.

Baina nola garatuko dugu ikuspuntu kritiko hori, euskal jendartean dauden arazoak aztertu eta horietako zenbait gabezia bete gabe, nazioartean egiten ari direna kontuan izan gabe? Galdera horiei erantzuteko, ezaugarri hauek izango lituzkeen hezkuntza irudikatu behar dugu etorkizun handiko egitasmo honen hasiera honetan, online irakaskuntza eta baliabide digitalak ere kontuan hartuz: inklusioa, ubikuotasuna, ikasmaterialen aniztasuna eta moldagarritasuna, arreta pertsonalizatua eta euskal curriculum inplementatzeko aukera, besteak beste. Eta jakina, teknologiak dituen aukerak aipatzeaz gain, berekin dakartzan arriskuak ere kontuan izan beharko ditugu.

Eta amaitzeko, ez dezagun ahaztu "IKTak eta kompetentzia digitalak hezkuntzan" proiektua mardula izan arren, hezkuntza komunitatean partekatua eta, horregatik, irakurterraza izan behar duela. Hauxe bere beste erronka deigarria da, bere horretan.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Planaren garapena Ikastolen Elkarrekin izendatutako mentore talde batek gidatuta garatuko da. Gure mentorea, gure digitalizazio barzordearekin elkarlanean jardungo du eta bere gidaritzapean ibiliko gara.

Gure digitalizazio batzordeari dagokionean, buru bezala eta mentorearekiko kontaktu zuzen moduan, zuzendaritza taldeko kide bat zehaztu da. Pertsona honek mentoreak eskeinitako informazioa zuzendaritza talde osoari zabaltzeko funtzioa edukiko du eta proiektuaren buru eta bultzatzailea izango da, nahiz eta egitekoak garatzeko orduan, funtzioa zuzendaritza talde osoarena izango den.

Proiektuaren planifikazioari dagokionean, mentoreak bideratutako denboralizazioari jarraituz eta eskainitako laguntza eta ereduak kontuan hartuta, ondorengo prozesua garatuko da:

1 - Egoeraren argazkia:

Urriaren zehar eta "Selfie for School" tresna erabilita, Ikastolako irudia zein den jasoko da, ikasle, irakasle eta zuzendaritza esparruan bideratu beharreko galdetegi batzuen laguntzaz. Galdetegi horien bitartez, esparru ezberdinetako errealitatearen isla jasoko da, Ikastolako etapa bakoitzeko txosten bat lortuta.

2 - Analisia:

Azaro eta abenduan zehar, aurreko atalean jasotako txostenen analisiari ekingo zaio. Horrela zuzendaritza taldetik, etapa bakoitzeko txostena aztertu eta elementu esanguratzuenak identifikatu eta estamentu ezberdinen arteko adostasun mailak ikertuko dira. Guzti honen bitartez, azken pausoa, etapa desberdinen arteko ondorio eta laburpenak lortzea izango da eta horiek baliatuko dira AMIAren taula osatu eta honen ondorioak zehazteko.

3 - Helburuak

Urtarrila eta otsaila bitartean, AMIA taula eta honen ondorioak oinarritzat hartuta, zuzendaritza taldeak plan digitalean ezarriko diren helburuak zehaztuko ditu. Helburu horiek gehienez 2 urteko epean eskuratzeko helburu errealak izan beharko dute.

4 - Ekintzak

Otsaila eta martxoa bitartean, zuzendaritza taldeak, zehaztutako helburuak eskuratu ahal izateko aurrera eraman beharreko ekintzak zeintzuk diren finkatuko ditu. Ekintza horiek SMART metodologiaren logikaren barnean garatuko dira eta zein epean garatuko diren eta jarraipena nola egingo den ere finkatuko da.

5 - Dokumentuaren garapena

Apirila eta maiatza bitartean, dokumentuaren idazketari ekingo zaio, eskeinitako txostenaren baitan. Horrela ekainean aplikatibora igo ahal izateko.

6 - Publikatzea

Ekainaren 16a baino lehenago, digitalizazio batzordearen buruak, IPDa aplikatibora igoko du.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Proiektu digitala ikastolaren hezkuntza proiektuarekin bat etorriko da eta ikastolaren kudeaketa planean integratuta egongo da. Ikastolaren kudeaketa, plan estrategikoan oinarritzen da eta hori urteko planetara hedatzen da.

Proiektu digitalak azken bi atal hauetan bere zatia izango du, non plan estrategikotik urteko planera hedatzen diren helburuak zehaztuta izango dituen. Proiektu digitalean definitzen diren helburu eta ekintzak plan hauetan integratuko dira, epe ertainekoak plan estrategikoan eta epe motzekoak (urtebetekoak) urtez-urteko planetan agertuko dira.

Proiektu digitalaren jarraipena urteko planean egingo da eta horrek erakutsiko digu bertan zehazten diren helburuak betetzen diren. Proiektu digitaleko helburuak betetzeak, bai urteko plana nola plan estrategikoaren betetze mailan eragingo du.

Urteko planak ikastola osoari eragiten dio eta zuzendaritzaren jarraipena eta ebaluazioa dauka, hala nola ikastola komunitate osoaren berrikuspena (artezkaritza, familiak, langileak eta ikasleak). Hortaz, proiektu digitalean definitutakoak jarraipen zehatza izango du komunitate osoaren bidez.

Hori horrela, ikastolako proiektu digitala erabat integratuta egongo da ikastolako kudeaketa testuinguru orokorrean.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

HH-LH

3tik behera baxuak (ahulguneak), 3-4 ertainak, 4tik gora altuak (indarguneak)

Lidergoaren atalean emaitza baxuak dira, bai zuzendaritza eta irakasleen iritzia antzekoak direla.

Altuenak: Egile-eskubideei eta erabilera-lizentziei buruzko arauak: 3,8.

Baxuenak: Estrategia digitala: 1,5

Kolaborazioa eta sareetan emaitzak erdi mailakoak dira eta antzeko pertzepzioa 3 estamentuetan teknologiaren erabilerari buruzko eztabaidan izan ezik, ikasleek askoz altuago baloratu dutela.

Altuenak: Teknologiaren erabilerari buruzko eztabaida 3,1.

Baxuenak: Urruneko irakaskuntza eta ikaskuntzarako sinergiak: 1,7.

Azpiegitura eta ekipamenduak atalean emaitza altuak dira hiru estamentuetan, laguntza teknikoan izan ezik ikasleek askoz altuago baloratzen dutela. Indargunea izan daiteke.

Altuenak: Ikaskuntzako gailu digitalak 4,2.

Baxuenak: Datuen babesa 2,5.

Etengabeko prestakuntza profesional atalean emaitzak baxuak dira. Ahulezia izan daiteke.

Altuenak: EPP-n parte hartzea eta bizipenak partekatzea 2,5.

Baxuenak: EPP beharrak: 1,9

Pedagogia: laguntza eta baliabideak atalean, emaitzak altuak dira, irakasleek oso altu baloratu dute hezkuntza-komunitatearekin komunikatzea eta ikaskuntzarako ingurune birtualak erabiltzea, azken honetan aldea dago Zuzendaritzaren balorazioarekin.

Altuenak: hezkuntza komunitatearekin komunikatzea eta online baliabideak 4.

Baxuenak: Ikaskuntzarako ingurune birtualak erabiltzea: 2,8.

Pedagogia: ikasgelan aplikatzea, LHko irakasleak eta ikasleak emaitza oso altuak (4 ingurukoak) eta antzekoak dituzte, Zuzendaritza askoz baxuago orokorrean (2,5) Batexz bestekoa 3-4 artean daude beraz maila ertaina.

Altuenak: Ikasleen inklusioa 3,8.

Baxuenak: ikasleen premietara egokitzea, sormena sustatzea, diziplina arteko proiektuak.

Ebaluazio jarduketak, irakasleen eta zuzendaritzaren balorazioa ertaina da, eta irakasleen eta zuzendaritzaren balorazioa oso antzekoa.

Altuenak: Gaitasunen ebaluazioa, atzera elikadura egokia 3,5

Baxuenak: Nork bere ikaskuntzari buruzko hausnarketa egitea eta ebaluazio digitala 3,2

Ikasleen konpetentzia digitalak, goi mailako balorazioak daude estamentu guztietan. Indargunea izan daiteke.

Altuenak: Portaera arduratsua 4,5

Baxuenak: Besteek egindako lana aitortzea 3,8

Etapa bakoitzean, estamentu desberdinen arteko diferentziak eta adostasunak.

HH-LH

Irakasle eta zuzendaritza arteko datuak alderatzen dira. Ikasleak LH5 eta 6koak dira eta ez dira kontutan hartu.

DESDERDINTASUNAK: (>1 tartea)

D Etengabeko prestakuntza profesionala

D1 EPP beharrak zuzendaritza 1,5 eta irakasleak 2,4 (1,9, ahulezia izan daiteke)

F Pedagogia gelan aplikatzea

F1 Ikasleen premietara egokitzea (zuzendaritzak 2 eta irakasleak 4)

F3. Sormena sutatzea (zuzendaritzak 2.5 eta irakasleak 4)

F4 Ikasleen inklusioa (zuzendaritzak 3 eta irakasleak 4,3)

F5 Ikasleen arteko elkarlana (zuzendaritzak 2,5 eta irakasleak 3,9)

F6 Diziplinarteko proiektuak (zuzendaritzak 2,5 eta irakasleak 4)

G Ebaluazio jarduketak

G7 kenduta, atal guztietan zuzendaritzak 3-3.5 inguru eta irakasleak 2.0tik behera

ADOSTASUNAK : (<0,5 tartea)

A Lidergoa

Guztietan <0,5 tartea baina emaitzak oso baxuak, A5 izan ezik, egile-eskubideei eta erabilera-lizentziei buruzko arauak 3,8

Zuzendaritza 4 eta Irakasleak 3,5)

B. Kolaborazioak eta sareak

Guztietan <0,5 tartea baina emaitzak oso bajuak. Ahulezia izan daiteke.

C Azpiegitura eta ekipamenduak

C3 Laguntza teknikoa 1,5 eta 1,6 (ahulezia izan daiteke)

C7 Datuen babesa 2,5 eta 2,6 (ahulezia izan daiteke)

E. Pedagogia: laguntzak eta baliabideak

Ikaskuntzarako Ingurune birtualak erabiltzea izan ezik (2 eta 3,5), beste guztietan adostasun maila handia.

G Ebaluazio jarduketak

Atal guztietan zuzendaritzak 3-3.5 inguru eta irakasleek 3,4tik 4ra.

H. Ikasleen kompetentzia digitalak

Atal guztietan zuzendaritzak 3.5 - inguru eta irakasleek 4tik 4,5era. Indargunea izan daiteke.

Etapen desberdinen arteko ondorioak edo laburpenak, etapen arteko desberdintasun eta adostasunak adieraziz.

HH-LH

A- LIDERGOA

Bai zuzendaritzan bai irakaslegoan balorazio eskasa lortu du eta beraz, ahulezia izan daiteke. Egile eskubideen galdera zehatzean interes berezia adierazten dute.

B-KOLABORAZIOA

Balorazio txarra dago eta zuzendaritzan eta irakaslegoan puntuazio berdina atera da, urruneko Irakaskuntza eta ikaskuntzarako sinergiak galderan puntuazioa bereziki bajua da. Ahulezia izan daiteke.

C-AZPIEGITURA

Azpiegituretan maila guztietan oso ondo baloratuta dago eta balorazio onak egiten dituzte. Indargunea izan daiteke. Laguntza teknikoa eta Datuen babesa eremuetan emaitza bajua da. Azken bi hauek ahulezia izan daitezke.

D. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA PROFESIONALA

Bai zuzendaritzan bai irakaslegoan balorazio eskasa lortu du eta beraz, ahulezia izan daiteke.

E. PEDAGOGIA: LAGUNTZAK ETA BALIABIDEAK

Orokorrean oso puntuazio ona atera da.

E3 - Ikaskuntzarako Ingurune birtualak erabiltzea: Desberdintasun handia zuzendaritza (2) eta irakaslegoaren puntuazioan (3,5) Desadostasuna.

F. PEDAGOGIA: IKASGELAN APLIKATZEA

Desberdintasun handia zuzendaritza (2,5) eta irakaslegoaren puntuazioan (4). Orokorrean eremu guztietan desberdintasun hau adierazten da.

G. Ebaluazio-jarduketak

Eremu guztietan oso ondo baloratuta dago. Balorazio onak egiten dituzte bai zuzendaritzan bai irakaslegoan emaitzak antzekoak izanik (3,1 eta 3,5 batez bestekoa). Indargunea izan daiteke.

H. Ikasleen kompetentzia digitalak

Eremu guztietan oso ondo baloratuta dago. Balorazio onak eta antzekoak egiten dituzte. Indargunea izan daiteke.

AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

1. Lidergoa, estrategia digitala sortu eta irakaskuntza aztertzeko denbora zehaztu.
2. Etengabeko prestakuntza profesionala beharra zehaztu.

+ Lerro bat gehitu

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

1. Egoera ekonomikoa gero eta larriagoa eta horrek digitalizazio planari egin diezaioken kaltea.
2. Desdigitalizazioaren aldeko ekimenak gizarte talde batzuetan.

+ Lerro bat gehitu

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

1. Estrategia digitala ongi definitua dago.
2. Azpiegitura egokia: gailuak, Internet konexioak, besteak beste.
3. Hezkuntza komunitatearekin komunikazioa oso ongi baloratuta dago.
4. Teknologiaren erabilera nahiko hedatuta dago ebaluazio prozesuetan.

+ Lerro bat gehitu

Aukerak (kanpo-faktoreak)

1. Europak Next Generation funtsen bitartez digitalizazioan aurreratzeko eskaini duena.
2. Digitalizazio plana Europako markoaren baitakoa izatea.
3. Digiprest ikastaroaz baliatzea irakasleen kompetentzia digitalaren zertifikazioak lortzeko.

+ Lerro bat gehitu

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu **aukerak** areagotzeko

Nahiz eta azpiegitura egokia izan, Next Gen funtsak erabili daitezke ekipamenduak berritzeko eta falta direnak txertatzeko. Estrategia digitala egokia izan arren, digitalizazio planaren garapenak horretan ere lagunduko du. Hezkuntza komunitatearekin komunikazioa oso ongi baloratuta egon arren, digitalizazio planak lagundu ahal du hobe izaten. Teknologiaren erabilera hedatuta badago ere, irakasleen prestakuntzaz baliatuta akreditazio ofiziala lortu daiteke.

Ahuleziei aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

Digitalizazio plana aprobetxatuz, lidergoa eta etengabeko formakuntza profesionala arloetan dauden hutsuneak bete eta hobetuko dira.

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

Estrategia digital egokia eta hezkuntza komunitatearekin komunikazio egokia izateak, desdigitalizazioaren aldeko mugimenduak indargabetzeko baliagarria izan daiteke, sortuko balira.

Azpiegitura eta baliabide egokiak izateak, krisi ekonomiko baten aurrean posizio egokia izateko baliagarria da, inbertsioak egiteko zailtasunak egon arren, ikastolaren digitalizazio prozesuarekin aurrera jarraitzeko aukera egongo delarik.

Ahuleziei eta **mehatxuei** aurre egin

Egoera ekonomiko larriak, behar den denbora edo liberazioak eskaintzeko zailtasunak eman ditzake, digitalizazio prozesuetan laguntzeko.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua		
Ikas-irakaskuntza digitala eta teknopedagogikoaren hobekuntza aztertu HH eta LH etapetan, behintzat irakaslegoaren %60ak formakuntza jasotzeko 2024/2025 ikasturtean.		
Deskriptorea	Epea	
LG 1.3 Plan estrategikoan jasota dago aro digitaleko ikaskuntza	2023/12/04	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.3 A1 Ikastetxeak bere oinarrizko dokumentazioan (Urteko Plana, IHP, ...) sartzen ditu irakasle-tald	Bai/Ez	2023/12/04

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
IKT taldea sortu azterketa burutzeko.		Zuzendaritza eta IKT arduraduna	2023/09/30	Egina
Prestakuntza beharrak aztertu eta identifikatu.	Drive	Zuzendaritza eta IKT arduraduna	2023/09/30	Egina
Plangintza diseinatu eta denborak zehaztu.	Calendar Drive	Zuzendaritza eta IKT arduraduna	2023/09/30	Egina
Ikasturtean zehar irakaslegoaren digitalizaziorako egutegia zehaztu.	Calendar Drive	Zuzendaritza eta IKT arduraduna	2023/10/02	Egina
Irakaslegoarekin plangintza partekatu dokumentazio karpetan.	Calendar Drive	Zuzendaritza eta IKT arduraduna	2023/10/02	Egina

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Deskriptorea		Epea
Adierazlea	Mota	Helmuga

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

GP Garapen profesionala

Helburua		
Irakasleen prestakuntza indartzea HH eta LHn, etapa bakoitzeko irakasleen % 60k teknopedagogiarekin lotutako prestakuntza-ikastaroren bat (online edo aurrez aurre) egin arte.		
Deskriptorea	Epea	
GP 1.5 EGP egiaztatu/ziurtatuak lortzeko aukerak sustatzen dira	2024/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.5 A1 Irakasleei Prestgara, INTEF eta beste erakundetako ikastaroak egitera animatzen zaie.	Bai/Ez	2024/06/21

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Formakuntza beharrak eta helburuak zehaztu.	Drive Txostena	Zuzendaritza IKT arduraduna	2023/10/20	Egina
Berrikuntza errazten duten tresna digitalak identifikatu, ezagutu eta formakuntza blokeak zehaztu.	Kanpoko formakuntza	Zuzendaritza IKT arduraduna	2023/10/20	Egina
Prestakuntza plana zehaztu.	Drive Txostena	Zuzendaritza IKT arduraduna	2023/05/31	Egina
Irakaslegoarekin partekatu.	Drive	Zuzendaritza IKT arduraduna	2023/05/31	Egina

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua

Deskriptorea		Epea
Adierazlea	Mota	Helmuga

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

Deskriptorea		Epea
Adierazlea	Mota	Helmuga

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua

Deskriptorea		Epea
Adierazlea	Mota	Helmuga

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

AZ Azpiegiturak

Helburua

Deskriptorea		Epea
Adierazlea	Mota	Helmuga

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua		
Irakasleek prestakuntzan barneratutako edukiak HH eta LHko etapetara egokitu eta inplementatu ikaslegoaren %80ak jaso dezan.		
Deskriptorea	Epea	
Prestakuntza bukatzen den heinean, irakasleak zikloka bilduko dira eta helburuak, baliabideak, denboralizazioa, jarduerak eta	2024/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Prestakuntzak irakasleen gaitasun eta estrategia digitala garatzen ditu.	Ehunekotan	2024/06/21
Prestakuntzan garatutakoa praktikotasunean oinarritzen da.	Ehunekotan	2024/06/21

+ Adierazle gehitu

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Prestakuntzak zehaztu maila bakoitzean.		Zuzendaritza taldeak eta IKT arduradunak	2023/11/06	Egina
Egutegi zehatza prestatu.		Zuzendaritza taldeak eta IKT arduradunak	2023/11/06	Egina
LHko maila batzuetan piloto jarri.		Zuzendaritza taldeak eta IKT arduradunak	2024/06/21	Egina
Pilotajearen balorazioa egin eta hobekuntzak proposatu.		Zuzendaritza taldeak eta IKT arduradunak	2024/06/21	Egina
Gainontzeko mailetara zabaldu.		Zuzendaritza taldeak eta IKT arduradunak	2024/06/21	Egina
Balorazio orokorra egin.		Zuzendaritza taldeak eta IKT arduradunak	2024/06/21	Egina

+ Ekintza gehitu

+ Helburu gehitu



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Ikas-irakaskuntza digitala eta teknopedagogikoaren hobekuntza aztertu HH eta LH etapetan, behintzat irakaslearen %60ak formakuntza jasotzeko 2024/2025 ikasturtean.	Ekainaren lehenengo astean.	Adostutako egutegia bete den aztertuz.	Zuzendaritza taldeak eta IKT arduradunak		
II						
GP	Irakasleen prestakuntza indartzea HH eta LHn, etapa bakoitzeko irakasleen % 60k teknopedagogiarekin lotutako prestakuntza-ikastaroren bat (online edo aurrez aurre) egin arte.	Ikastaro saio bakoitzean eta ekainaren hasieran ikasturteko emaitza orokorrak.	Saio bakoitzeko asistentzia erregistroa beteko da adostutako irakasle porzentaia ikastaroa jaso duela ziurtatuz.	Zuzendaritza taldeak eta IKT arduradunak		
EJ						
EC						
EN						
AZ						
IB	Irakasleek prestakuntza barneratutako edukiak HH eta LHko etapetara egokitu eta inplementatu irakaslearen %80ak jaso dezan.	Ikastaro bakoitzean eta ekainaren lehenengo astean ikasturtean zehar egindakoa.	Dokumentu batean jaso, ikastaro saioetan eskatutako lana eginda eta praktikan jarri dela ziurtatuz.	Zuzendaritza taldeak eta IKT arduradunak		